

HIZTEGIA

Hiztegiaren erabilera onerako klase-hasieran ikasleei banatzea eta, hitzak banan-banan hartuta, haien esanahiari buruz mintzatzea proposatzen da.

Gida didaktikoaren barruan aurkituko duzuen hiztegi teknikoak bai bideoan teoria agertzerakoan, bai inguru profesionalean erabiltzen diren oinarritzko hitzez osatua dago.

LIBURUAK

Proposatzen diren liburuek zerikusi estua daukate kameraren eta argien munduko gaiekin eta ikasgaiekin, bai alderdi artistikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko, bai alderdi teknikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko.

Errealizazioa deitu dugun atalean agertzen diren liburuak sakonagoak dira, eta gaian gehiago sakondu nahi duten ikasle eta irakasleei zuzenduak daude.

BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA

8. KAPITULUA

NOLA ARGIZTATU KANPOALDEAN

Sarrerako hitzak

Jakin badakigu egun goibeleko argia eta egun eguzkitsuetakoa ez direla berdinak, ezta goizaldekoa eta arratsaldekoa ere. Orduan, ba al dago argi naturala kontrolatzerik? Berdinak al dira barrualdean eta kanpoaldean erabiltzen diren fokuak? Galdera horiei eta beste batzuei erantzuten ahaleginduko gara kapitulu honetan. Kanpoaldea argiztatzeko teknikei buruz mintzatuko gara kapitulu honetan. *Lantegia* atalean, kanpoaldeko dekoratuak argiztatzeko plangintza nola egin ikasiko dugu.

Atalak

- Argi naturala
- Argiztapena kanpoaldean
- Nola kontrolatu argi naturala
- Kanpoaldea argiztatzeko tresneria
- Bideo-kamerako argiak
- Amarruak

-LANTEGIA ATALA: kanpoaldean argiztatzeko plangintza

AMARRUAK

Eszena bat argiztatzeko ez dago modu bakar bat. Dekoratu bakoitzak, giro bakoitzak, aktoreen jantziak, denek eragiten dute zuzen-zuzen irudian eta irudiak iradokitzen duenaren gainean. Ikasteak, ausardiak eta plangintza egokiak bakarrik emango digute aukera emaitza onak lortzeko.

Ikus-entzunezko bat grabatzeko hainbat aholku emango dizkizuet orain.

1.- Bideo-kamera eta argiztatzeko tresneria grabazioa hasi baino egun batzuk lehenago eskura izatea komeni da, dekoratua hainbat proba egiteko. Batik bat, dela grabazioaren zailtasunagatik, dela argiztapen-motagatik kezkatuta gaudenean.

2.- Landare-papera, gasak eta gelatinak fokuan bertan ezarri behar ditugu, haren argi-sorta osoa iragaz dezaten. Hori dela eta, temperatura altuak jasan beharko dituztenez, lanparatik ahalik eta urrutien kokatu behar ditugu. Gureak bezalako potentzia erdiko fokuetan kokatzeko zurezko matxardak erabiliko ditugu, eta, hegaltxoan ertzetan lotuko, ikusten ari zareten bezala.

3.- Beirategi askoko dekoratu batean –museo batean, adibidez–, dena agertzen da beiran islaturik; eta, islak saihesten ahalegindu arren, beti izaten da baten bat, grabatzerakoan ikusi ez duguna, baina irudiak muntatzerakoan agertzen zaiguna. Bideo-kameraren nahiz haren inguruko beste tresnen isla ekiditeko, azalera landu guztiak oihal beltz batez estaliko ditugu. Teknikarion mugimenduak ere ager daitezke islaturik, batez ere kolore argiko jantziak badaramatzagu. Horrelakoetan, tresnekin egin dugun bezala egingo dugu teknikariek ere: argiztatzeko tresneriaren zorroan sartu ditugun elastiko beltzak jantzarazi, alegia. Gehienetan, azkarragoa da talde teknikoari elastikoak jantzaraztea bideo-kamera lekuz aldatzea baino.

4.- Lurrean dauden mahukei aski da oinez tira egitea, konexioren bat askatzeko. Hori saihesteko, mahuken bi muturrak lotu egingo ditugu, konektatu aurretik. Korapiloaren helburua, tira eginga konexioak ez askatzea da.

5.- Itzalak eratzeko paper beltza edo kartoi zati bat erabil dezakegu, bestelako tresnarik ez badaukagu eskura.

6.- Dokumental baten parte diren pieza txikiak grabatu nahi baditugu, eta grabatutako plano horiei jarraipen itxura eman nahi badiegu, hiru aukera dauzkagu:

*pieza bakoitza dekoratuko hondo beraren aurrean jarrita grabatu;

*guk, hartarako eramandako hondoaren aurrean jarrita grabatu;

*edo kroma egiteko egokia den hondo baten aurrean jarrita grabatu eta, gero, muntaian guk nahi dugun hondo jarri.

Aukeratutako modua, edozein delarik ere, bideo-kameraren tresneriaren artean hondoak egiteko materiala ipintzea komeni da.

7.- Aktoreek euren saioak egiten dituzten bitartean, dekoratua bertan gaudela, argiztapena zehazten jarrai dezakegu. Baina, eszenaren grabazioa hasi bezain pronto, dagoena dagoen bezala utzi behar dugu, argizko jarraipenarekin arazorik ez izateko.

LANTEGIA: Kanpoaldean argiztatzeko plangintza

Gaur, *lantegia* atalean, egunez kanpoaldean eszena bat nola grabatu ikusiko dugu.

Egingo dugun lehenengo gauza argiztapen-plangintza egiteko prestatu dugun galdeketari erantzutea izango da. Galdera batzuei grabaziorako plangintza kontuan hartuta erantzungo diegu; besteak beste, aukeratutako tokiari buruzkoei, grabatzeko orduari buruzkoei eta soinuari dagokienei. Baina besteei erantzuteko, dekoratua bisitatu beharko dugu.

Dekoratua bisitatu ondoren, atzera lan-mahaira itzuliko gara; eta, han hartutako oharrak berrikusiko ditugu. Kanpoaldea dela baieztatu dugu, bankua zuhaitz adartsu eta hostotsu baten azpian dagoen banku bat dela ere egiaztatu dugu, baita banku hori hegoaldera begira dagoela ere; izan ere, eguzkiak egun osoan zehar argitzen du.

HIZTEGIA

Kanpoaldeko argiztapena: egun argiz aire zabalean grabatu nahi denean erabiltzen dena. Kanpoaldean grabatzerakoan kontuan izan behar da eguzkiaren argiaren kolorea; hau da, haren kolore-tenperatura. Izan ere, eguzkiaren argiak egunean zehar izaten dituen kolore-aldaketak oharkabean igarotzen zaizkigu, hain gaude ohituta haren argiari.

Kameraren argiak: bideo-kamerari lotuta erabili ohi diren argi iturriak. Erreportariak erruz erabiltzen dituzte, batez ere, urriki argiztatuta dauden tokietan egin behar dituzten elkarrizketetan; edo, astirik gabe dabiltzanean, albiste bat osatzeko. Bideo-kameraren argi horiek 12 V-eko bateriei konektatzen zaizkie. Oro har, 20 eta 100 W-eko potentziakoak izaten dira. Ia guztiak halogenoak izaki, argi gogorra proiektatzen dute; eta leuntzeko, argiaren aurrean iragazki barreiatzaile bat ipintzen zaie.

Argi naturala: eguzkiaren argia. Argi naturalak eguraldiaren, urtaroaren eta eguneko orduaren eragina jasaten du. Beraz, eguraldiak, orduak, hautatutako argiztapen-erlazioak, bideo-kameraren kokaguneak, koadroak, giroak eta horrelakoek irudiaren estiloan eragin nabarmena izaten dute.

LIBURUAK

Bideo-kamera eta argiztatzeko tresneria

MILERSON, Gerald: *Cómo utilizar la cámara de video*, Gedisa, Bartzelona, 1998

SWUAISON, G eta LYVER, Des: *La iluminación en video, Principios básicos*. Gedisa, Bartzelona, 1997

MILERSON, Gerald: *Iluminación para televisión y cine*, IORTV, Madril, 1996

ARONOVICH, R.: *Exponer una historia. La fotografía cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Errealizazioa

CHESHIRE, David: *Manual de cinematografía*, Blume, Madril, 1981

FELDMAN, Simon: *La composición de la imagen en movimiento*, Gedisa, Bartzelona, 1995

FELDMAN, Simon: *La realización cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Internet

www.imagendv.com

www.quesabesde.com

SERIEA OSATZEN DUTEN KAPITULUAK

- 1.- GRABATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA
- 2.- BIDEO KAMERAREN OBJEKTIBOA
- 3.- MUGIMENDUA IRUDIAN
- 4.- ARGIA
- 5.- ARGIZTATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA
- 6.- ARGIZTATZEKO TRESNA ETA OSAGARRIAK
- 7.- ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK
- 8.- NOLA ARGIZTATU KANPOALDEAN
- 9.- ARGIZTATZEKO TEKNIKA BEREZIAK
- 10.- PRODUKZIOA ETA ENTSEGUAK
- 11.- GRABATZEN

ekoizlea:

iadi

LG.- VI-27 / 06

Banatzailea:



Getaria, 18-behea, 01010-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608
artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

Ikasmaterial honek
Hezkuntza,
Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitorrena
du.

2006/05/02